

SAKANAKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAKO ATSEDENALDIETAN HAURREN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PROGRAMA BAT KUDEATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZEN PLEGUA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Sakanako Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako atsedenaldietan haurren euskararen erabilera sustatzeko programa bat kudeatzeko laguntza teknikoak kontratatzea.

2. KONTRATAZIO ORGANOA ETA KONTRATUAREN KUDEAKETARAKO UNITATEA

Kontratazioarako organoa Sakanako Mankomunitateko Lehendakaritza izanen da, eta unitate kudeatzailea Mankomunitate horretako Euskara Zerbitzua.

3. ESLEIPENARENA PREZIOA

Kontratuaren prezioa 15.360,00 eurokoa izanen da urtean, BEZ kanpo, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 37/1992 Legearen arabera —zehazkiago, 20. artikuluko 9. atalari jarraiki—, jarduera hau salbuetsia baitago. Kopuru hori gainditzen dituzten proposamen ekonomikoak baztertuak izanen dira.

4. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuak urte bateko iraupena izango du, eta 2023ko abenduaren 31n bukatuko da. Gehienez ere lau urteko indarraldia izanen du, luzapen guztiak barne direla. Luzapenak espresuki eman beharko dira. Kontratuaren luzapenetan 2023 urterako finkatutako diru kopuru bera ordainduko da orduko. Nolanahi ere, ordaindu beharreko kopurua ekitaldi ekonomiko horretako Sakanako Mankomunitatearen aurrekontuak baldintzatuko du.

5. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia lau urterako 61.440,00 eurokoa da, BEZ kanpo, jarduera hau salbuetsia baitago. Zehazkiago, lizitazioaren prezioa programak eskainitako ordu kopuruaren arabera izanen da: urtean gehienez ere 384 ordu eskainiko dira, eta orduko prezioa 40 eurokoa izanen da —prezio horretan gastu zuzenak zein zeharkakoak sartuko dira—. Hortaz, kontratua 15.360,00 eurokoa izanen da gehienez urtean, eta betiere kontuan hartuz jarduera BEZetik salbuetsia dagoela.

Izapidetze aurreratuko espedientea izango da izapidetuko dena; hortaz, kasuan kasuko ekitaldian kontratutik datozen betebeharrak finantzatzeko kreditu aski eta egokia izatea bermatuko da.

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Esleipen-hartzaileak ezingo du inondik ere erreklamatu bere eskaintzan ezarritako prezioak igotzea.

7. ESLEITZEKO PROZEDURA

Baldintza hauetan aipatzen diren lanak Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Legearen 72. artikuluko xedatutakoaren arabera esleituiko dira, prozedura irekiari jarraituz. Lizitazioari buruzko iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko da. Eskaintzarik onuragarriena plegu honetan ezarritako irizpideei jarraiki zehaztuko da.

8. GIZA-BALIABIDEAK

Esleipen-hartzailearen kontura arituko diren langileek altan egon beharko dute Gizarte Segurantzaren, eta dagokien lan-kontratua izan. Langile horiek ez dute lan harremanik izango Sakanako Mankomunitatearekin, esleipendunaren mendeakoa izango baitira soil-soilik, eta harenak izango dira aipatutako langileen nagusi izateari atxikitako eskubide eta betebeharrak guztiak, lan arloko legediaren arabera. Bestalde, esleipendunak lan-mutualitate batekin bat egiteko agiria izenpetu beharko du, lan istripuak edukitzeko arriskuak estaliko dituen gai horri buruzko legediak eta laneko segurtasunari, osasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko araudiak ezarritakoa behar bezala betetz.

9. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Esleipenduna beharturik geratzen da ondoko eginbehar hauek betetzera:

a) Oinarri hauetan ezarritakoaren arabera bete behar du kontratua.

- b) Esleipen honen xede den programa burutzeko Sakanako Mankomunitateak emandako aginduak bete behar ditu.
- c) Begiraleez gain, begiraleen lana eta programa koordinatzeaz arduratuko den koordinatzailea izendatu beharko du. Hura Euskara Zerbitzuaren aurrean solaskidea izango da kontratu honen gauzatzearekin zerikusia duten alderdi eta gorabehera guztietarako, eta bera izango da, halaber, kontratatutako programa zuzentzeko arduraduna.
- d) Kontratua indarrean den bitartean kontratua betetzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonalak eta materialak eduki behar ditu.
- e) Oinarri hauetan xedatutako edozein betebeharrak burutzean sor litezkeen eragozpen edo atzerapenen aurrean esleipendunak aldaketarik egin beharko balu, ezinbestez Sakanako Mankomunitateari jakinarazi beharko lioke aurrez, Sakanako Mankomunitateak ontzat eman dezan.
- f) Kontratatutako Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren alorrean indarrean dagoen araudia bete beharko du nahitaez. Ez da inolako lan loturarik egongo esleipendunak kontratua gauzatzeko baliatzen dituen langileen eta Sakanako Mankomunitatearen artean.
- g) Esleipendunak behar beste neurri hartuko ditu esleipen honetako zerbitzua ematerakoan hirugarren batzuei kalterik egin ez dakien. Hala ere, kalterik egingo balu, berea bakarrik, esleipendunarena alegia, litzateke erantzukizuna.
- h) Programa burutzean hurrek jasan lezaketzen edozein motatako istripu edo gertakari kaltegarriei aurre egin ahal izateko, esleipendunak programa bere hedadura osoan estaliko duen erantzukizun zibileko aseguruia itundu beharko du entitate aseguratzaileraren batekin.
- i) Kontratak ekarritako edozein motatako gastuak (giza baliabideak, aseguruak, garraioak, zergak, tasak, prezio publikoak, baimenak, lizentziak eta abar), materialak eta baliabide teknikoak esleipen-hartzailearen kontura izanen dira.
- j) Esleipendunak kontratu honen xedeari dagozkion zereginak betetzeko beharrezkoa den langile kopuruari eutsi beharko dio une oro eta edozein egoeratan. Gai horri dagokionez enpresaren baje, oporren eta antzeko beste arrazoien ondorioz langileak falta badira, esleipendunak betetzeko dauden lanpostu horiek bete beharko ditu, halako eran non eutsi egingo zaion kontratuaren xede diren zereginak betetzeko beharrezkoa den langile kopuruari.
- k) Esleipendunak hitzematzen duen bete egingo duela datu pertsonalen babesari buruz indarrean den araudia eta, bereziki, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko eta gainerako xedapen osagarriak. Era berean, hitzematzen du langilei jakinarazi eta betearaziko diela agiri honetan ezarritako betebeharrak eta, zehazki, sekretua gorde behar diren dagozkionak.

10. LIZITATZAILEAREN KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA EGIAZTATZEKO BALIABIDEAK.

Lizitatzailerak kontratua exekutzeko kaudimen tekniko edo profesionala duela frogatu beharko du. Kaudimen tekniko edo profesionaltzat jotzen da kontratua behar bezala exekutzeko behar den gaikuntza tekniko edo profesionala, dela aurretik antzeko kontratuetan aritzearen esperientzia izatearen ondoriozkoa, dela behar adina langile eta bitarteko tekniko edukitzearen ondoriozkoa. Kaudimen tekniko edo profesionalaren maila kontratu bakoitzean zehaztuko da, eta kontratatutako prestazioaren ezaugarrien arabera eta proportzionala izanen da.

Lizitatzaileraren kaudimen tekniko edo profesionala frogatzeko, bide hauetako bat edo gehiago erabiltzen ahalko da:

- a) Gehienez ere azken hiru urteetan egindako zerbitzu nagusien zerrenda, bertan jasorik bakoitzaren zenbatekoa, data eta hartzaile —publiko edo pribatua— nor den. Zuzenbidean onar daitezkeen edozein frogak erantsiko da berme gisa. Adjudikazio botereek kontuan hartu ahalko dituzte aurreko aldietan emandako zerbitzuen frogak, horrela jotzea komenigarri egiten duten inguruabarrak aurretiaz justifikatzen badira.
- b) Langile teknikoak edo erakunde teknikoak aipatzea, enpresakoak nahiz kanpokoak izan, eta bereziki kalitate-kontrolaren arduradunak.
- c) Kontratua exekutzeko ardura duten langileen titulazio akademiko eta profesionalak aurkeztea, baldin eta adjudikaziorako irizpide gisa ebaluatzen ez badira.
- d) Lizitatzailerak azpikontratutako duen kontratu zatiaren eta esku hartuko duten azpikontratatutako aipamena, foru lege honetan xedatutakoaren arabera.

11. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA EGIAZTATZEKO BALIABIDEAK

Lizitatzailerak kontratua exekutatzen duen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa duela frogatu beharko du. Kaudimen ekonomiko eta finantzariotzat ulertuko da enpresaren egoera ekonomiko eta finantzario egokia, halakoa non izaera horietako ezein gorabeherak ez duen arriskuan jarriko kontratuaren behar bezalako exekuzioa. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren maila kontratu bakoitzean zehaztuko da, eta kontratuaren lizitazio aurrekontuaren arabera eta proportzionala izan da.

Lizitatzailerak kaudimen ekonomiko eta finantzarioa frogatzeko, bide hauetako bat edo batzuk erabili ahal dira:

- a) Finantza entitateek egindako adierazpenak, eta, profesionalen kasuan, lanbide arriskuengatik kalte-ordainen aseguruak dutela frogatzeko agiriak.
- b) Balantzeak edo balantze-laburpenak aurkeztea, pertsona fisiko edo juridikoa ezarrita dagoen herrialdeko legeriak haiek argitaratu beharra ezartzen duen kasuetan.
- c) Kontratuaren xedearen antzekoa den jardueraren bolumenari buruzko adierazpena, eskueran dauden azken hiru ekitaldietakoa gehienez ere, lizitatu behar duenaren sorrera-egunaren edo jardueraren hasiera-egunaren arabera, negozio bolumen horren erreferentziak eskura dauden heinean. Urteko gutxienezko negozio bolumen exijitua kontratuaren balio zenbatetsia halako bat izan da.
- d) Urteko kontuak onestearen betebeharra mugaeguneratuta daukan azken ekitaldi ekonomikoaren itxiera-unean ondare garbia edo aktiboen eta pasiboen arteko ratioa berdina edo handiagoa izatea lizitazio-iragarkian ezarritakoa baino, edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuko pleguetan ezarritakoa baino. Aktiboen eta pasiboen arteko ratioa kontuan hartu ahal da baldin eta adjudikazio-botereak kontratazio-pleguetan zehazten baditu datu hori baloratzeko erabiliko diren metodo eta irizpideak. Metodo eta irizpide horiek gardenak, objektiboak eta ez-diskriminatzaileak beharko dute izan.
- e) Zinpeko adierazpen bat, merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako borrokaren arloko araudia betetzeari buruzkoa.

12. PROPOSAMENEN AURKEZPENAK

Proposamenek bat etorri beharko dute lizitazioa arautzen duten pleguekin, eta proposamen-aurkezteak berarekin dakar haiek salbuespenik edo erreserbarik gabe onartzea. Plegu haiek kontratuaren parte izan dira.

Lizitatzailerak batek ezingo du eskaintza bat baino gehiago aurkeztu, eta ezin izango du beste lizitatzailerak batzuekin batera eskaintzarik izenpetu, baldin eta bakarkakoa aurkeztu badu, ezta era horretako talde batean baino gehiagotan agertu ere. Arau hori hautsiz gero, edo lotutako enpresek eskaintzak aldi berean aurkeztuz gero, ez da eskaintzarik batere onartuko.

Proposamenak PLENAN aurkeztuko dira, Nafarroako Lizitazio elektronikorako plataforman. Proposamenak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izan da, iragarkia Nafarroako Kontratuaren Atarian argitaratzen denetik hasita. Bertan agertuko da epe zehatza.

Proposamenak hiru gutun azaletan aurkeztuko dira. Itxita eta lizitatzailerak sinatuak eta zigilatuak, eta ondoko izen eta agiriak izan beharko dituzte:

1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena

Erantzukizunpeko adierazpena izan da barnean, lizitatzailerak sinatua, eta bertan honakoak adierazita:

- a) Gaitasun juridikoari eta jarduteko gaitasunari dagozkien baldintzak betetzen dituela eta, hala bada, sinatzaileak behar den ordezkari izaera baduela.
- b) Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren arloko baldintzak betetzen dituela.
- c) Kontratatzeko debeku egoeran ez dagoela. Adierazpen horretan adieraziko da, halaber, indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betetzea egunean duela.
- d) Kontratuaren xede diren prestazioak exekutatzen gainerako lege baldintzak betetzen dituela, bai eta kontratazio pleguetan ezarritakoak ere.
- e) Espainiako edozein ordenatutako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela gorabehera guztietarako, legokiokeen jurisdikzio-foruari uko eginik, atzerriko enpresen kasuan.
- f) Beste entitate batzuen idatzizko konpromisoa daukala bitartekoak atxikitzeaz edo baliabideak erabiltzeaz, hala denean.

Aldi baterako enpresa-elkarte bat eratzea aurreikusten denean, adjudikazio-hartzaile gertatuz gero hura eratzeko konpromisoa aurkeztuko da.

Bi pertsona fisiko edo juridikok edo gehiagok batera parte hartzen dutenean, agiri pribatu bat aurkeztu beharko dute, bertan adierazita: hori egiteko borondatea, bakoitzaren partaidetza portzentajea, eta izendatu duten ordezkari edo ahaldun bakarra, kontratuak sortzen dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko ahalmenak izanen dituen hura azkendu arte.

Posta elektronikoko helbide bat ematea, bertara egiteko prozedurako edozein faseri dagozkien jakinarazpenak.

Aurreko apartatuetan aipatzen diren inguruabarrak bete beharko dira eskaintzak edo parte-hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta iraun egin beharko dute kontratua burutzeko unean.

Betiere, adjudikazio proposamena bere alde izanen duen pertsonak gehienez zazpi eguneko epea izanen du, eskaera egiten zaionetik, eskatzen diren agiriak eta baldintzak badituela eta baliozkoak direla frogatzeko.

Eskatzen diren agiriek jatorrizkoak izan beharko dute, edo bestela, notario edo administrazio bidez egiaztatutako kopiak.

2. gutun-azala: Dokumentazio teknikoa

Lizitatzailerak urtebeterako plangintza bat aurkeztu beharko du. Plangintza horretan —gehienez ere 50 orrialde izanen dituenak—, honako hauek agertu behar dira:

- ✓ Programaren definizio orokorra
- ✓ Metodologia
- ✓ Lantaldea
- ✓ Baliabideak
- ✓ Jarraipena eta ebaluazioa

Bertan agertuko da lizitatzailerak aurkeztzen duen dokumentazio guztia, plegu honen 13. baldintzan agertzen diren esleitzeko irizpideetan balioetsi eta puntuatzeko, proposamen ekonomikoa izan ezik.

Hobekuntzak aurkezteko aukera aurreikusten den kasuan, proposatzen diren hobekuntzek lotura zuzena eduki behar dute kontratuaren helburuarekin, eta horien balorazio ekonomikoa egin beharko da. Kontratazio organoak esleipen akordioan berariaz onartzen baditu hobekuntza horiek, kontratuaren barruan sartuko dira.

3. gutun-azala: Eskaintza ekonomikoa

Gutun-azal horretan eskaintza ekonomikoa sartuko da (II. eranskina).

13. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

Aurkeztutako proposamenak balioetsi eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza zehazteko, goitik beherako hurrenkeran puntuatuko diren irizpideak honako hauek izanen dira:

Proposamen teknikoa: 60 puntu arte, ondoko atalei jarraiki:

a) Programaren definizio orokorra: 15 puntu arte.

- ✓ Programaren justifikazioa: 5 puntu arte.
- ✓ Programaren zuzeneko helburuak zein zeharkakoak: 5 puntu arte.
- ✓ Programaren lan-ildoak: 5 puntu arte.

b) Metodologia: 10 puntu arte.

- ✓ Jarduera garatzeko erabiliko diren teknikak: 5 puntu arte.
- ✓ Jarduera garatzeko erabiliko diren ekintzak: 5 puntu arte.

c) Lantaldea: 10 puntu arte.

- ✓ Lanean arituko direnen formazio akademikoa: 5 puntu arte. Programarako baliagarria den 10 orduko formazioa: 0,10 puntu.
- ✓ Lanean arituko direnen lan-esperientzia: 5 puntu arte. Hilabete 1 begirale lanetan aisialdiko programetan: 0,10 puntu.

d) Berdintasuna: 10 puntu arte.

- ✓ Emakumeei eragiten dien gizarte-desberdintasuna kontuan hartzea programan: 5 puntu arte.
- ✓ Berdintasun-plana izatea: 3 puntu arte.

- ✓ Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetakoak (besteak beste, emakumeen aurkako indarkeria nozitu dutenak, guraso bakarreko familiaburu direnak, desgaitasunik duten pertsonak edo iraupen luzeko langabetuak) kontratatzea: puntu 2 arte.

e) Jarraipena eta ebaluazioa: 15 puntura arte.

- ✓ Lanean arituko direnen barne-antolamendua: puntu 1 arte.
- ✓ Koordinazioa ikastetxeekin: puntu 1 arte.
- ✓ Koordinazioa Sakanako Mankomunitatearekin: puntu 1 arte.
- ✓ Ikastetxeen gogobetetzea neurtzeko euskarriak: puntu 1 arte.
- ✓ Haurren gogobetetzea neurtzeko euskarriak: puntu 1 arte.
- ✓ Helburuen betetze-maila ezagutzeko bideak: 5 puntu arte.
- ✓ Hobekuntzak: 5 puntu arte.

Proposamen teknikoaren atalean 30 puntu gainditzen ez dituzten lizitatzaileren eskaintza ekonomikoak ez dira zabalduko.

Proposamen ekonomikoa: 40 puntu arte. 40 puntu izanen ditu eskaintzarik merkeenak. Gainerakoei horren arabera puntuazioa emanen zaie proportzionalki. Ez dira onartuko lizitazioaren prezioa gainditzen duten eskaintza ekonomikoak.

Puntuazio orokorrean bi lizitatzaileraren edo gehiagoren arteko berdinketa emanen balitz, plantillan duten langile minusbaliatuen ehuneko handiena duen enpresa hobetsiko da, betiere, % 3 baino txikiagoa ez bada; hori ezean edo berdinketak jarraituko balu, behin-behineko langileen ehuneko txikiena duen enpresa hobetsiko da, betiere, % 10 baino handiagoa ez bada; eta hori ezean edo berdinketak jarraituko balu, genero ikuspegitik jardunbide egokiak dituen enpresaren alde ebatziko da, kasu guztietan kontuan hartuz eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko unean aipatu baldintzak ematea. Lehen aipatutako irizpideak aplikatu ondoren berdinketak jarraituko balu, zozketa bidez ebatziko da. Horretarako guztirako, ukituak diren enpresei beharrezko dokumentazioa eskatuko litzaieke, eta aurkezteko bost eguneko epea ezarri.

14. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio mahaia horrela osatuko da: mahaiburua: David Oroz Alonso (bere ordezkaria: Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza); mahaikideak: Castillo Suárez García (ordezkaria: Izaskun Errazkin Beltza) eta Ana José Errondosoro Otaegi (ordezkaria: Felix Altxelai Iriarte); Idazkaria: Miren Pereda Razkin (ordezkaria: Sarai Robles Vitas).

15. ESKAINTZAK IREKITZEA ETA ESLEIPEN PROPOSAMENA

Barneko ekitaldian lizitatzailerearen ahalmena eta kaudimena kreditatzen duen dokumentazioaren gutun-azalak ireki eta aztertuko dira, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, tekniko edo profesionala balioetsiz, eta eskatutako dokumentazioa garaiz eta forman aurkeztu duten lizitatzaileren onarpena ebatziz.

Kontratu Publikoen apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 96 artikulua dioenari jarraiki, aurkeztutako dokumentazioan zerbait falta bada edo zalantzarik badago, lizitatzaileri bost egun naturaleko epea emanen zaio aurkeztu duen dokumentazioa osatu edo zuzendu dezan. Eskatu zaion dokumentazioa Sakanako Mankomunitateko erregistroan aurkeztu beharko du ezarritako epean. Dokumentazio horrek ezin izango ditu, inondik ere, eskaintzaren baldintzak aldatu.

Ondoren, eta barneko ekitaldian, onartutako lizitatzailereak aurkeztutako dokumentazio teknikoaren gutun-azalak ireki eta aztertuko dira adjudikatzeko irizpideen arabera puntuak emateko, eskaintza ekonomikoarena izan ezik. Aurkeztutako eskaintzaren bat iluna edo zehaztugabea dela ikusten bada, argibide gehiago eskatu ahal izango dira, baina horiekin ezingo da aurkeztutako proposamena aldatu. Erantzuteko epea bost egun naturalekoa izango da.

Kontratu Publikoen apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 59.2.c artikulua adierazitakoarekin bat eginez, lizitatzailere bat ez bada eskatutako gutxieneko puntuaziora iristen, ezingo du kontratazio prozeduran jarraitu; hori guztia ikuspegi teknikitik egokiak ez diren edo kontratua egoki gauzatu dela behar bezala bermatzen ez duten eskaintzak baztertzeko eskumenari kalterik eragin gabe.

72 ordu lehenago gutxienez, eskaintutako prezioaren irekiera publikoaren lekua, data eta ordua iragarriko dira. Eskaintza ekonomikoaren gutun-azalak irekitzeko ekitaldi publikoan eta, horiek ireki baino lehen, epaimahaiak egindako balorazioaren emaitza jakinaraziko die bertaratuei.

Aurkeztutako eskaintzaren bateko prezioa iluna edo zehaztugabea dela ikusten bada, prezio hori formula, ekuazio edo antzeko zerbaiti men egiten dion kasuetan, argibide gehiago eskatu ahal izango dira, baina bakarrik hura osatzen duten faktoreei buruzko argibideak izan ahalko dira.

Eskaintza txikiegi bat atzematen bada, eta susmoa hartzen bada lanak ez direla behar bezala egingo, kontratazio mahaiak, eskaintza baztertu aurretik, egoera horren berri emango dio eskaintza aurkeztu duen lizitatzailerari —edo lizitatzailerari, horrelako eskaintza bat baino gehiago balego—. Kontratu Publikoen Foru Legearen 98. artikuluan aurreikusitakoarekin bat eginez. Eskaintza bat txikiegizat hartuko da kontratuaren balio zenbatetsia baino % 30 txikiagoa bada.

Kontratazio mahaiak esleipen proposamena egingo du. Proposamenean plegu honetan ezarritako irizpide objektiboak aplikatzean eskaintza bakoitzari eman zaion puntuazioa aipatuko da, eskaintza onargarria egin duten lizitatzailerak lehentasun hurrenkeraren arabera ordenatuz.

16. ESLEIPENA

Esleipen proposamena jakinarazi eta 7 eguneko epean esleipen-proposamena jaso duen lizitatzailerak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Lizitatzailerak pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala aurkeztu beharko du. Pertsona juridikoa bada, eraketaren eskritura aurkeztu beharko da, edo, hala badagokio, aldagokion erregistroan behar bezala inskribaturik egon beharko duena. Horretaz gain, entitatearen ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia edo araubidez hura ordezkatzeko duen agiria aurkeztu beharko du.

b) Lizitatzailerak Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzaileraren Borondatezko Erregistroan inskribatuta badago, nortasuna eta enpresaren ordezkariaren egiaztatze nahikoa izango da erregistroak jaulkitako ziurtagiriaren kopia eta indarrean dagoela esaten duen aitortpena aurkeztea.

c) Lizitatzaileraren izenean proposamen ekonomikoa sinatuko duen pertsonaren aldeko ahalordea eta pertsona ahalduaren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia behar bezala egiaztatuta. Lizitatzailerak pertsona juridikoa bada, ahalordeak inskribaturik egon beharko du dagokion erregistroan.

d) Lizitatzaileraren aitortpena, edo, hala badagokio, bere ahaldu edo ordezkariarena, non bere erantzukizunpean adieraziko baitu enpresak eta administratzaileak ez daudela sartuak kontratatze ezgaitasun edo bateraezintasun arrazoietan, Kontratu Publikoen apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 22. artikulua aipatzen dituzten horietan.

e) Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren arloko baldintzak betetzen dituela frogatzeko dokumentazioa.

f) Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergaren edo Lizentzia Fiskalaren alta-agiria edo, hala badagokio, azken ordainagiria.

g) Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria eta, horrez gain, lizitatzailerak zerga-betebeharrak dituen administrazio publikoaren organo eskudunena, lizitatzailerak haiekiko zerga-betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatze, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere sei hilabete lehenago luzatua.

h) Gizarte Segurantzak luzatutako ziurtagiria, indarra duten xedapenek ezartzen dizkieten Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dituela egiaztatze, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere sei hilabete lehenago luzatua.

i) Lizitatzaileraren aitortpena, edo, hala badagokio, bere ahaldu edo ordezkariarena, non bere erantzukizunpean adieraziko baitu, indarra duten xedapenek ezarritakoa betetzen duela laneko segurtasunari, osasunari eta lan-arriskuen prebentzioari dagokienez.

j) Elkartuta parte hartzen duten lizitatzailerak izenpetua bada proposamena, dokumentu pribatu bat erantsiko zaio, eta bertan adieraziko da elkartuta parte hartzeko borondatea, bakoitzari dagokion parte hartzearen ehunekoa, eta izendatutako haiek ordeztutako dituen ordezkari edo ahaldu bakarra. Idazki hori elkartutako enpresek zein aipatutako ahalduak izenpetu beharko dute.

k) Erantzukizunpeko deklarazioan adierazitakoa frogatzeko gainerako dokumentuak.

Apirilaren 19ko 174/2004 Foru Dekretu bidez sortutako Nafarroako Foru Erkidegoko Lizitatzaileraren Erregistro Boluntarioan izena emana duten elkarten eta kooperatiben kasuan, erregistro horretan izena eman izanaren ziurtagiriaren kopia, Internet bidez elektronikoki lortua, eta, horrekin batera, hori indarrean dela adierazten duen aitortpen arduratsua aurkeztuz gero, erakunde lizitatzailerak salbuetsi egingo da bere izaerari eta ordezkariaren buruzko dokumentazioa aurkeztu beharretik.

Aipatutako dokumentazioa ez bada aipatutako epean aurkezten, eskaintzen balorazioaren arabera zerrendako hurrengo lizitatzaileraren aldeko esleipen proposamena egingo du Kontratazio Mahaia. Dokumentazioa aurkeztu ez duen lizitatzailerak kontratuaren balio zenbatetsiaren %5ari dagokion zigorra ordainduko du, eta baita kalte eta galeren kalte-ordain osagarria ere, ehuneko horretarik gorako guztiari dagokionez.

Aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, dagokion esleipen proposamena egingo zaio kontratazio organoari, eta hark esleipenaren erabakia jakinaraziko die lizitazioan parte hartu dutenei. Jakinarazpenean azalduko dira hautatutako eskaintzaren ezaugarriak edo abantailak eta esleipenak zer datatan izango duen erabateko eraginkortasuna.

Kontratazio organoak, eta plegu honetan ezarritako irizpideak kontuan hartuta, eskaintza onuragarriena duen proposamenari esleitu dio kontratua, gehienez ere hilabeteko epean eskaintako prezioaren irekiera publikoaren ekitalditik kontatzen hasita. Esleipena lizitazioan parte hartu duten entitatei jakinaraziko zaie. Jakinarazpen horretan jasoko da baztertutako lizitatzailerak esleipenaren erabakiaren kontra behar bezala oinarritutako errekursoa jarri ahal izateko beharrezko informazioa, esleipenaren suspentsio epea eta bereziki zehaztuko da zer arrazoiaren ondorioz baztertu den hautagai edo eskaintza bat eta hautatutako eskaintzaren ezaugarriak edo abantailak, Kontratu Publikoen Foru Legearen 100. artikuluan aurreikusitakoarekin bat eginez.

17. BERMEA

Kontratuaren esleipendunak, lanak egingo direla bermatzeko helburuarekin, hamabost egun naturaleko epean esleipenaren jakinarazpenetik zenbatzen hasita, kontratuaren % 4ari dagokion bermea eratu beharko du. Berme hori kontratistaren betebeharrak atxikita egongo da, eta bereziki, berandutzeagatik zigorren ordainketari eta kontratua gauzatu bitartean kontratistak eragin ditzakeen kalte eta galeren konponketari. Bestalde, berme hori bahitu ahal izango da, kontratistaren erruz kontratua ez betetzeagatik hura suntsitu den kasuetan, egiaztatu diren kalte eta galerak estaltzeko behar den kopuruan; berme hori nahikoa ez balitz, Sakanako Mankomunitateak indarrean dauden xedapenak ezartzen dituzten mekanismoen bitartez hartu ahal izango du ordaina.

Berme hori modu hauetakoren baten bitartez eratu beharko da:

- a) Eskudirutan. Bermea Sakanako Mankomunitateak zabalik duen kontu korrante batean gordailatu beharko da.
- b) Banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako bermearen bidez. Dagokion kontratazio organoaren aurrean aurkeztu beharko da. Bermea Sakanako Mankomunitatearen alde jaulki beharko da. Iraupena mugagabea izango da: indarrean egongo da Sakanako Mankomunitateak berariaz erabakitzen duen arte betebeharrak bermatzailea iraungi dela eta bermea indargabetu dela.
- c) Aseguru baten kontratazioaren bidez. Kontratuaren ziurtagiria dagokion kontratazio organoari eman beharko zaio. Berme horrek ondorioak izango ditu Sakanako Mankomunitateak berariaz hura indargabetzeko eta itzultzeko baimena ematen duen arte.

18. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua dokumentu administratiboan gauzatuko da, esleipenaren suspentsio epea amaitu eta 15 egun naturaleko epean, eta dokumentu horrek edozein erregistro publikora sartzeko ahalbidetuko du.

Kontratua formalizatzen den egun berean ekingo zaie lanei, edo, hala badagokio, kontratuaren unitate kudeatzaileak zehazten duen egunean. Kontratua baldintza hauei estuki lotuta gauzatuko da, eta indarrean den legediak Sakanako Mankomunitateari kontratua interpretatzeko, aldatzeko eta deuseztatzeko ematen dizkion ahalmenen mende geldituko da kontratista. Agintzen zaizkion aginduak betetzen ez badira, agiri honetan ezarritako zigorrak aginduko dira.

19. OHARTARAZPENAK

Kontratuak errespetatu egin behar ditu lege-, erregelamendu- eta konbentzio-mailetako xedapenak, indarrean daudenak honakoei dagokienez: fiskalitatea, Gizarte Segurantzaren, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, sexuagatik jazarpena edo jazarpen sexuala, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta lan-arloko gainerako xedapenak, desgaituen laneratzeko eta gizarteratzea. Halaber errespetatu behar ditu desgaituen kopuru edo portzentaje zehatz bat kontratatzearen betebeharra eta, batez ere, kontratatu beharreko jarduerak kokaturik dagoen sektorean esparrurik baxueneko azken hitzarmen kolektibo sektorialak ezarritako baldintzak.

Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du adjudikazio-hartzaileak aurre egin ahal izateko kasuan kasuko sektoreko hitzarmenaren aplikaziotik heldu den kostuari, gutxienez ere; aintzat harturiko soldaten orduko prezioak ezin izan diren inolaz ere baxuagoak izan orduko prezioak, gehi hitzarmeneko orduko prezioari buruzko hobekuntzak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino.

Zerbitzu-kontratuaren kasuan, kontratazioa eginen da, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 67. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, langile guztien subrogazioa bermatzearen baldintzapean, beste enpresa batekoak izanagatik ere kontratuaren xede den jarduera egiten ari badira.

20. KONTRATUAREN SUNTSIPENA

Pertsona edo erakunde esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta kontratua ezin bada bi hilabeteko epearen barruan gauzatu, Sakanako Mankomunitateak hura suntsiaraztea erabaki dezake, baina ezinbesteko izapidea izango da interesdunari entzutea. Pertsona edo erakunde esleipendunak Sakanako Mankomunitateari kontratuan zenbatetsitako zenbatekoaren % 5ari dagokion zigorraren ordainketa egin beharko du, eta baita kalte eta galeren kalte-ordain osagarria ere, ehuneko horretatik gorako guztiari dagokionez.

Hautatutako pertsonak edo erakundeak ez dituenean kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen, eta kontratua suntsitzea erabakitzen denean, Sakanako Mankomunitateak haren ondorengo pertsona edo erakunde lizitatzailerak hautatu ahal izango ditu, eskaintzen beheranzko balorazioaren arabera, baldin eta hori posible bada eta interesdunaren adostasunarekin, deialdi berri bat egin aurretik.

21. AZPIKONTRATAZIOA

Azpikontratazioa soilik onartuko da Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 107. artikuluan ezarritako kasuetan eta aurreikusitako baldintzetan. Azpikontratazioak ez dio kontratista nagusiaren erantzukizun eskusiboari eragingo.

22. ARRISKUA ETA MENTURA

Kontratua esleipendunaren arrisku eta menturara gauzatuko da, eta haren kontura izango dira kontratua gauzatu bitartean gertatzen diren galerak, matxurak edo kalteak; edonola ere, interesdunak aseguratatu egin beharko ditu horiek.

23. KONTRATUA DEUSEZTATZEKO ARRAZOIAK ETA ZEHAPENAK

Baldintzaren bat ez betetzeak edo behar den moduan ez betetzeak berekin ekarri ahal izanen du Mankomunitateak kontratua deuseztatzea edo zehapen bat ezartzea. Zehapen ekonomikoak arau-haustearen larritasunaren arabera izanen dira. Zehapenak ez ordaintzeak, halaber, berekin ekarri ahalko du kontratua deuseztatzea, edo bermea galtzea dagokion kopuruaren heinean. Nolanahi ere, kontratua deuseztatzeak kontratistari eginiko lanen prezioa jasotzeko eskubidea ematen dio, betiere kontratuan ezarritakoaren arabera eginak badira eta administrazioak jaso baditu.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izanen dira Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 160 artikulua ezarritakoak. Horietaz gain, kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daitezke:

- a) Kontratututako zerbitzuetakoren bat ez ematea.
- b) Zerbitzua atzeratzea edo etetea.
- c) Arduragabekeriak edo axolagabekeriak jardutea.
- d) Segurtasun eta osasun neurriak ez betetzea.
- e) Giza baliabideak edo baliabide materialak faltatzea edo ez edukitzea.
- f) Isilpekotasun profesionalaren betebeharra ez betetzea.
- g) Azpiegitura bat nahita hondatzea edo hondatzen uztea.
- h) Memoretan faltsukeriak jokatzea.
- i) Errealitatearekin bat ez datozen fakturak aurkeztea.
- j) Kontratua uztea.
- k) Kontratua baimenik gabe lagatzea.
- l) Kontratuaren Unitate Kudeatzailearen teknikariek idatziz agindutako zereginen uko egitea.

Horiez gain, zerbitzu kontratua suntsiarazteko arrazoiak izanen dira:

- a) Kontratua exekutatzearen hasiera etetea. Administrazioari egozten ahal zaion arrazoiengatik, sei hilabete baino luzeagoa den epean, kontratuan adierazitako egunetik aurrera.

b) Kontratuari uztea edo administrazioak urtebete baino luzeagoa den epean etetea erabakitzea.

Kontratu osagarriak suntsitu egingen dira, betiere, kontratu nagusia suntsiarazten denean.

Kontratazio organoak zilegi izanen du, salbuespen gisa, kontratua exekutatzan jarrai dadin erabakitzea, baldin eta frogatzen badu kontratua suntsiarazteak kalte larria eragin diezaiokeela interes publikoari.

Kontratazio organoak erabakiko du kontratua suntsiaraztea, ofizioz edo kontratistak eskaturik, prozedura honi jarraituz:

a) Kontratistari hamar eguneko entzutea emanen zaio, prozedura ofizioz hasten denean.

b) Gainerako interesdunei hamar eguneko entzutea emanen zaie. Kontratuan berme formala eskatu bada, entzutea eman beharko zaio abal-emaileari edo aseguratzaileari fidantza konfiskatzea proposatzen denean.

c) Kontratazio organoaren zerbitzu juridikoek txostena egingen dute.

Kontratua suntsiaraztearen ondorioak izanen dira Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 161 artikulua ezarritakoak.

24. LANAK BURUTZEA ETA KONTROLATZEA

Lanak kontraturako oinarri izango diren baldintza hauei estuki lotuta eta Sakanako Mankomunitateak lanaren jarraipena egiteko izendatutako langileek idatziz emaniko jarraibideak kontuan harturik gauzatuko dira. Langile horiek kontratu honetan sartzen diren lanen kontrola egingen dute, eta kontratistak kontrol hori ahalbidetuko die.

Egindako lanak ez badira kontratatutako zerbitzura egokitzen kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsengatik, Sakanako Mankomunitateak lanak atzera bota ahal izanen ditu, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geldituko da.

25. ORDAINKETA

Kontratu honengatik Sakanako Mankomunitateak gehienez ere 40,00 € (BEZ barne) ordainduko ditu orduko 2023. urtean; urtean gehienez ere 15.360,00 €. Prezio horretan sartuko dira begiraleen soldata eta gizarte segurantzak, kilometrajea, saiok prestatzeko lanak, materiala eta trebakuntza, eta programa abian jartzeko alde zurretatik egin behar diren kudeaketa lanak. Bestelako jarduerak ez dira finantzatu.

Esleipendunak fakturak eta memoriak aurkeztu eta kontu-hartzaileak eta horretarako izendatutako euskara teknikariak oniritzia eman eta gero egingo dira ordainketak. Urtean bi faktura aurkeztu ahal izango ditu esleipendunak: urtariletik ekainera bitartekoa bata eta irailetik abendura bitartekoa bestea. Fakturretan fakturatutako orduen kontzeptu zehatzak agertuko dira.

26. LANEN JABETZA ETA USTIAPENA

Kontratu hau burutzeko prestatzen diren dokumentu guztiak eta egiten diren lanak kontratugilearenak izanen dira, eta ez beste inorenak. Esleipen-hartzaileak ezin izanen du material hori erabili, ezta argitaratu edo zabaldu ere, edo beste inori laneko datu edo dokumenturik eman, baldin eta Sakanako Mankomunitateak espresuki emandako baimena ez badu. Konpromiso hori hausten badu, leporatzen ahal zaion kaltea ordaindu beharko dio Sakanako Mankomunitateari. Bakar-bakarrik bi aldeen artean akordiorik egiten baldin bada eman ahalko zaio baimena esleipen-hartzaileari lanak ustiatzeko, eta akordioan adierazten den moduan bakarrik.

27. ESLEIPEN-HARTZAILEARI BERMEA ITZULTZEA

Bidezkoa denean, kontratua bukatu ondorengo hogeita hamar egun igaro baino lehen itzuliko zaio bermea esleipen-hartzaileari. Bermea ofizioz itzuliko da, kontratuaren unitate kudeatzaileak kontratua bete dela adierazten duen txostena egin ondoren edo kontratua kontratistaren errurik gabe baliogabetu bada.

28. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratua sinatu ondoren aldaketak egin ahalko zaizkio Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 114. eta ondoko artikuluetan ezarritako prozedurei jarraituz. Kontratazio organoak behar bezala baimendu gabeko aldaketak kontratistaren erantzukizuna izanen dira.

29. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak Kontratu Publikoen Foru Legean azaldutako edozein izan litezke, eta horrez gainera, falta larriak edo oso larriak errepikatzen badira ere suntsi liteke kontratua. Kontratua suntsitzen bada kontratistaren erruz kontratua bete ez delako, hark kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio Sakanako Mankomunitateari

eragindako kalte-galerengatik, eta, horretarako, egiaztatu diren kalte eta galerak estaltzeko beharrezkoa den zenbatekoa bahituko zaio bermean.

30. JURISDIKZIOA ETA ERREKURTSOAK

Espedientearen xedea den kontratuak izaera administratiboa du. Beraz, kontratuak betetzearen eta baldintza-agiriaren xedapenak interpretatzearen ondorio diren gorabeherak oro, hasiera batean, kontratazio organoak ebatziko ditu.

Nolanahi ere, lizitazioan interesa duten enpresek, profesionalek eta norbanakoek kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa aurkezten ahalko dute Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian, izapide-egintzen edo behin betiko egintzen aurkakoa, baldin eta egintza horiek lizitaziotik baztertzen badituzte edo haien xedeei kalte egiten badiete.

Erreklamazioa 10 egun naturaleko epean aurkezten ahalko da, honela kontatzen hasita:

- a) Lizitaziorako iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita, iragarki hori eta bertan ageri den dokumentazioa aurkaratzeko.
- b) Aurkaratutako egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita, lizitatzaiilek tramitazio eta adjudikazio egintzen kontrako errekurtsua aurkezteko.
- c) Enkargua ente instrumental bati egiteari buruzko iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita.
- d) Ente instrumental batentzako kontratuaren edo enkarguaren aldaketari buruzko iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Erreklamaziorako oinarria Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 124.3 artikuluan aipatzen direnetako bat izan beharko da. Erreklamazio hau aurkeztuz gero, ezin izanen da bestelako errekurtsu administratiborik jarri arrazoi berean oinarrituta.

Baldintza hauetan aurreikusirik ez dagoen guztian, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean jasotako araudia eta irizpideak bete beharko dira, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean adierazitako berezitasunak kontuan harturik. Horrez gain, aipatutako lege horietan jasota ez dauden gaitan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua ere hartuko da kontuan.

Nafarroako administrazioarekiko auzien epaitegi eta auzitegien administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izanen du horren gaineko eskumena.

I. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

- ✓ Izen-abizenak: _____
- ✓ NAN zenbakia: _____
- ✓ Jakinarazpenetarako helbidea: _____
- ✓ e-helbidea: _____
- ✓ Bere izenean edo hau ordezkatzuz (bete baldin badagokio): _____
- ✓ Helbidea: _____
- ✓ IFZ: _____
- ✓ Telefonoa: _____
- ✓ e-helbidea: _____

ADIERAZTEN DU:

Sakanako Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako atsedendietan haurren euskararen erabilera sustatzeko programa bat kudeatzeko laguntza tekniko kontratatzekeko administrazio-baldintzen pleguaren berri baduela, eta, horiek horrela:

- a) Gaitasun juridikoari eta jarduteko gaitasunari dagozkien baldintzak betetzen dituela eta, hala bada, sinatzaileak behar den ordezkari izaera baduela.
- b) Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren arloko baldintzak betetzen dituela.
- c) Kontratatzeko debeku egoeran ez dagoela.
- d) Indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betetzea egunean duela.
- e) Kontratuaren xede diren prestazioak exekutatzekeko gainerako lege baldintzak betetzen dituela, bai eta kontratazio pleguetan ezarritakoak ere.
- f) Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela gorabehera guztietarako, legokiokeen jurisdikzio-foruari uko eginik, atzerriko enpresen kasuan.
- g) Beste entitate batzuen idatzizko konpromisoa daukala bitartekoak atxikitzeaz edo baliabideak erabiltzeaz, hala denean.
- g) Berariazko baimena ematen duela bere posta elektronikoa erabiltzeko, dagozkion jakinarazpenak egiteko. Hona bere posta elektronikoko helbidea: _____

Eta horrela jasota gera dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau sinatu dut.

Lakuntzan, 2022ko _____aren _____(e)an

Sinadura

✓ Adjudikazio proposamena bere alde izanen duen pertsonak gehienez zazpi eguneko epea izanen du, eskaera egiten zaionetik, eskatzen diren agiriak eta baldintzak badituela eta baliozkoak direla frogatzeko.

✓ 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoan, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoan xedatutakoarekin bat, jakinarazten dizugu emandako datuak plegua kudeatu eta kontratazioa egiteko erabiliko direla soilik, betiere esleipenduna bazara. Datu horiek Sakanako Mankomunitatearen datu-basea osatzen duten fitxategietan sartuko dira; halaber, jakinarazten dizugu baduzula datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko eskubidea, Sakanako Mankomunitateko erregistro orokorrera joz (Uriz kalea 32, 31830 Lakuntza).

II. ERANSKINA PROPOSAMEN EKONOMIKORAKO EREDUA

✓ Izen-abizenak: _____

✓ NAN zenbakia: _____

✓ Jakinarazpenetarako helbidea: _____

✓ e-helbidea: _____

✓ Bere izenean edo hau ordezkatzuz (bete baldin badagokio): _____

✓ Helbidea: _____

✓ IFZ: _____

✓ Telefonoa: _____

✓ e-helbidea: _____

ADIERAZTEN DU:

Kontratuaren lizitazioari dagozkion klausula administratibo partikularren agiriaren berri baduela, eta konpromisoa hartzen duela ordezkatzeko duen enpresaren izenean kontratua gauzatzeko, betiere klausula administratibo eta teknikoei hertsiki loturik. Era berean, aitortzen du klausula horiek zein diren badakiela eta onartzen dituela. Kontratuaren prezioa honako hau da (zenbakietan idatzi), BEZ kanpo:

Lakuntzan, 2022ko _____aren _____(e)an

Sinadura

3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoan, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoan xedatutakoarekin bat, jakinarazten dizugu emandako datuak plegua kudeatu eta kontratazioa egiteko erabiliko direla soilik, betiere esleipenduna bazara. Datu horiek Sakanako Mankomunitatearen datu-basea osatzen duten fitxategietan sartuko dira; halaber, jakinarazten dizugu baduzula datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko eskubidea, Sakanako Mankomunitateko erregistro orokorrera joz (Uriz kalea 32, 31830 Lakuntza).